

HUHEZIKo Zuzendaritza Kontseiluaren prentsa-oharra Maialen Elduaren atxiloketaz

2009/11/24

Gaur goizaldean Espainiako poliziak hainbat gazte atxilotu ditu polizia-operazio batean, tartean **Maialen Eldua** donostiarra, Haur Hezkuntzako ikaslea HUHEZIn, 3. mailan. Hori dela-eta, HUHEZIKo Zuzendaritza Kontseiluak prentsa ohar bat kaleratu du.

“HUHEZIKo Zuzendaritza Kontseiluak zera adierazi nahi du bertako ikasle Maialen Elduaren atxiloketaren aurrean:

- Giza eskubide guztiekiko errespetua ipar eta gidari dugun aldetik, kezkatu egiten gaitu Maialenek jasan dezakeen tratuak; horregatik, atxilotuta dagoen bitartean bere oinarritzko eskubideak errespetatzea eskatzen dugu.
- Era berean, Maialenen ustezko errugabetasuna une oro errespetatzea galdegiten diegu nola hedabideei hala erakunde eta gizarte eragileei.
- Unibertsitate erakunde garen aldetik, kezkatu egiten gaitu gazte mugimenduetako pertsonak atxilotzeak; horregatik, gizarteari dei egiten diogu gertakari hauen aurrean gogoeta egitera. Unibertsitatea ideien eta pentsamendu askearen gune den heinean, iruditzen zaigu aniztasun ideologikoa eta politikoki antolatzeaskatasuna bermatu egin behar direla gizartean bizikidetzaren normalizatua ziurtatzeko”.

HUHEZIKo Zuzendaritza Kontseilua

Eskoriatzan, 2009ko azaroaren 24an.

